

## **IKERTZAILEENTZAKO DIRU-LAGUNTZA PROGRAMA 2015**

### **1. HELBURUA**

2015ko Ikertzaileentzako Diru-laguntza Programak esperientziadun ikertzaileen lan-ibilbidea sustatu, lotu, prestatu eta hobetu nahi du, euren ikerketa-proiektua ikerketa-arlo estrategikoetan eta Bizkaiko Lurralde Historikoan finkatutako ikerketa-erakundeekin batera garatzen dutenean (Espainia).

Programa honek honako honexetarako laguntzak esleitzeko irizpideak ezarri eta zehaztu egin nahi ditu:

- Esperientziadun ikertzaileei Bizkaian integratzen laguntzea, euren ikerketa-proiektua Bizkaian finkatutako ikerketa-erakunde batean garatzeko aukera izan dezaten.
- Bizkaian proiektu berritzaileak abian jartzen dituzten kanpo-laguntzaileei lotzen laguntzea, esperientzia luzeko ikertzaileek Bizkaiko erakundeekin lankidetzak ezartzeko eta ikerketa-proiektu berritzaileak garatzeko aukera izan dezaten.
- Adituei atzerrian prestatzen laguntzea, euren lan-ibilbidea Bizkaian garatu nahi duten ikertzaileek ikerketa-proiektua garatzeko eta euren lan-ibilbidea hobetzeko aukera izan dezaten.

Programa hau Europako Batzordearekin batera finantzatzen da VII. Esparru Programaren barruan (People - Marie Curie Actions), eta eskualdeko gaitasun zientifikoa indartzea dauka helburu. Horren bidez, esperientziadun ikertzaile seniorrak erakartzen ditu, jakintzaren transferentzia hobetzen du, atzerriko sareak sendotzen ditu eta ikertzaileen kopuru egokia lortzen du. Era berean, Bizkaiko zein Europako hazkuntza ekonomikoa, ikerketa-jardueren garapena eta ikertzaileen garapen profesionala bultzatzea ere badu helburu.

Hiru modalitateren arabera egongo da antolatuta, eta ikertzaileei Euskadin integratzen eta euren garapen profesionala hobetzen laguntzea izango dute helburu. Modalitate guztietan, nazioarteko mugikortasuna egongo da, eta esperientziadun ikertzailea zein Bizkaiko Lurralde Historikoan finkatutako ikerketa-erakundea elkartuko dira. Hona hemen euren ezaugarriak:



- **1. modalitatea: esperientziadun ikertzaileei Bizkaian integratzen laguntzea (barrurako mugikortasuna eta berrintegrazioa).** Plan honi esker, esperientziadun ikertzaileak Bizkaira etorri edo itzuli ahal izango dira, Bizkaian finkatutako ikerketa-erakundean ikerketa-proiektua garatzeko.

Finantziazioak ikertzailearen mantenu-gastuen<sup>1</sup> %100eraino estaliko ditu, hiru urteko gehienezko epealdian. Soldata-kostuaren gainerako zenbatekoa, ostera, Ala balitz, Bizkaian finkatutako erakunde anfitrioiaren konturakoa izango da.

- **2. modalitatea: Bizkaian proiektu berritzaileak abian jartzen dituzten kanpo-laguntzaileei lotzen laguntzea (barrurako mugikortasuna - 10 urtetik gorako esperientzia duten ikertzaileak).** Plan honi esker, esperientzia luzeko ikertzaileek lankidetzak ezarri eta ikerketa-proiektu berritzaileak garatu ahal izango dituzte Bizkaiko erakundeekin. Bizkaia:talent-en ekarpenari esker, ikertzailearen mantenu-gastuen 61.000 euroraino estali ahal izango dira urtean, 2 urteko gehienezko epean.

- **3. modalitatea: Bizkaira itzultzeko asmoa duten adituei atzerian prestatzen laguntzea (kanporako mugikortasuna).** Plan honi esker, euren lan-ibilbidea Bizkaian garatu nahi duten ikertzaileek ikerketa-proiektua garatu eta euren gaitasunak hobetu ahal izango dituzte nazioarteko erakunde ospetsuetan. Diru-laguntzak ikertzailearen mugikortasun-gastu<sup>2</sup>, bidaia-gastu<sup>3</sup> eta mantenu-gastuen %100eraino estaliko ditu, 3 urteko gehienezko epealdian.

## **2. DIRU-HORNIDURA**

900.000 euro.

## **3. ONURADUNAK**

Honako hauexek batera aurkeztu beharko dituzte eskabideak:

- Doktoretza edo, gutxienez, arduraldi osoko lau urteko ikerketa-esperientzia daukan esperientziadun ikertzailea (2. modalitatean, ordea, arduraldi osoko hamar urtetik gorako ikerketa-esperientzia eduki beharko du).

<sup>1</sup> Ikertzaileak bere zerbitzu profesionalak emateagatik jasotzen duen diru-kopurua.

<sup>2</sup> Ikertzailearen lekualdatzearekin erlazionatutako gastuak hartzen ditu barne.

<sup>3</sup> Ikertzaileak jatorriko lekutik erakunde anfitrioiarengana heltzeko bidaia-gastuak hartzen ditu barne.



- Ikertzaileak bere proiektu zientifikoa egiteko aukeratutako eta Bizkaiko Lurralde Historikoan finkatutako erakunde anfitrioiak.

#### **4. INTERES ESTRATEGIKOKO ARLOAK**

Batez ere, honako arlo estrategiko hauekiko batean lan egin beharko dute laguntzaren helburu diren ikertzaileek:

- *Aeronautika.*
- *Automobilgintza.*
- *Ingeniaritza aeroespaziala.*
- *Biomedikuntza.*
- *Bioteknologia.*
- *Berrikuntza ekologikoa (ingurumena errespetatzen duena):* batez ere, ingurumen-arloko zientziak eta teknologiak. Meteorologia eta klimatologia.
- *Energia:* batez ere, energiaren banaketa, kalitatea, eraginkortasuna eta aurrezkia. Energia berriztagarrien integrazioa. Energia eolikoa, eguzki-energia eta olatuena. Bioerregaien, erregai-pilen eta hidrogenoen sorkuntza.
- *Elektrizitatea - Elektronika.*
- *Material berriak:* batez ere, altzairua, metalgintza, material elektronikoa eta biomaterialak.
- *Nekazaritzako elikagaigintzako, nekazaritzako eta arrantzako baliabideak eta teknologiak.*
- *Telekomunikazioak.*
- *Errealitate birtuala.*
- *Sareen bilakaera eta sorrera.*
- *Hizkuntzalaritzako infoingeniaritza.*
- *Ingurumen-arloko adimena:* batez ere, informazio-sentsoreen sareak; errealitate birtuala, handitua eta mistoa; edukiak tratatzeko teknologiak; teknologia biometrikoak; pertsona/gailua interfazeak, teknologia semantikoak eta teknologia asistiboak.

- *Enpresa digital hedatua.*
- *Teknologia berriak.*

Agiri honetan azaldutakoak ez beste arlo batzuetan lan egiten duten hautagaien eskabideak ere hartuko dira kontuan, betiere proiektuaren eta/edo pertsonaren arabera halaxe justifikatuta badago.

## **5. DIRU-LAGUNTZA MODALITATEAK**

Ikertzaileentzako Diru-laguntza Programa hau hiru planen arabera egongo da antolatuta. Hiru planetan, hautagaiek aukeragarritasun-irizpideak bete eta kasuan kasuko agiriak aurkeztu beharko dituzte. Era berean, eskabideek ere honako betekizun hauek bete beharko dituzte modalitate bakoitzean:

### **A. 1. MODALITATEA - Esperientziadun ikertzaileei Bizkaian integratzen laguntzea**

1. modalitatean, erakunde anfitrioiaren eta ikertzailearen arteko epe luzerako lankidetzaz ezartzea da xedea, eta bizkaia:talent-entzatzat ikertzaileak eurak dira helburu nagusia. Diru-laguntzaren bitartez, gehienez **ikertzailearen soldataren %100** ordainduko da erakundeak kontratatzen duen egunetik hasita, **lehenengo hiru lan-urteetararte gehienez**. Ala balitz, gainontzeko soldata, ostera, erakunde anfitrioiaren konturakoa izango da.

#### **Oso ondo prestatutako langileen betekizunak/betebeharrak:**

- Doktoretza edo, gutxienez, arduraldi osoko lau urteko ikerketa-esperientzia edukitzea.
- Azken 3 urteotan erakunde anfitrioiaren herrialdean 12 hilabetez gora lanean egon ez izana, deialdiaren azken egunetik hasita.
- Bizkaian finkatutako erakundearen laguntzaz gaitasunak eta ikerketa-proiektua garatu nahi izatea.

#### **Erakunde onuradunaren betekizunak/betebeharrak:**

- Zerga-helbidea Bizkaian duten enpresak, unibertsitateak, elkarteak eta fundazioak edo Bizkaiko Lurralde Historikoan lantokia daukaten erakundeak izatea.

- Bizkaian finkatutako ikerketa-erakundean ikerketa-proiektua garatzeko asmoz, Bizkaira etorri edo itzuli nahi duten esperientziadun ikertzaileei lagundu nahi izatea.

## **B. 2. MODALITATEA - Bizkaian proiektu berritzaileak abian jartzen dituzten kanpo-laguntzaileei lotzen laguntzea**

Plan honi esker, esperientzia luzeko ikertzaileek lankidetzak ezarri eta ikerketa-proiektu berritzaileak garatu ahal izango dituzte Bizkaiko erakundeekin.

2. modalitatean, ikertzaileen lan-ibilbidearen mesederako lankidetzak sortuko dira epe labur eta ertainerako. Oso modalitate egokia izango da, unean-unean ikertzaileek eta erakunde anfitrioiak proiektu zehatz batean elkarrekin lan egin dezaten. Ikertzaileak proiektuan parte hartuko du, baina ez da Bizkaian betiko geratu beharko. Lankidetzak hau ikertzaileak berak zehaztuko du epealdi mugatu baterako.

**bizkaia:talent-en ekarpenari esker, ikertzailearen mantenu-gastuen 61.000 euroraino estali ahal izango dira urtean, 2 urteko gehienezko epean.** Urteko muga hori gainditzen duen kostua Bizkaiko erakunde anfitrioiak ordaindu beharko du.

### **Oso ondo prestatutako langileen betekizunak/betebeharrak:**

- Gutxienez arduraldi osoko hamar urteko ikerketa-esperientzia edukitzea.
- Azken 3 urteotan erakunde anfitrioiaren herrialdean 12 hilabetez gora lanean egon ez izana, deialdiaren azken egunetik hasita.
- Bizkaian proiektu berritzaileak abian jartzea eta Bizkaiko erakundeekin lankidetzak ezartzea.

### **Erakunde onuradunaren betekizunak/betebeharrak:**

- Zerga-helbidea Bizkaian duten enpresak, unibertsitateak, elkarteak eta fundazioak edo Bizkaiko Lurralde Historikoan lantokia daukaten erakundeak izatea.

- 10 urtetik gorako esperientzia eta nazioarteko esperientzia egiaztatua dauzkaten ikertzaileak Bizkaian finkatutako proiektu berritzaileetan sartu eta lotu nahi izatea.

### **C. 3. MODALITATEA - Bizkaira itzultzeko asmoa duten adituei atzerrian prestatzen laguntzea**

Plan honi esker, euren lan-ibilbidea Bizkaian garatu nahi duten ikertzaileek ikerketa-proiektua garatu eta euren gaitasunak hobetu ahal izango dituzte nazioarteko erakunde ospetsuetan. Diru-laguntzak ikertzailearen mugikortasun-, bidaia-eta mantenu-gastuen %100eraino estaliko ditu, 3 hilabete eta 3 urte arteko epealdian.

**Jasotako diru-laguntzak ikertzailearen mugikortasun-, bidaia-eta mantenu-gastuak estaliko ditu oso-osorik edo zati batez, hautagaiaren ebaluazioaren eta proiektuaren interes-mailaren arabera.**

Ikertzaile guztiak Gizarte Segurantzako estaldura eta erakunde anfitrioiaren arauetan aurreikusitako prestazio guztiak izango dituzte.

#### **Oso ondo prestatutako langileen betekizunak/betebeharrak:**

- Doktoretza edo, gutxienez, arduraldi osoko lau urteko ikerketa-esperientzia edukitzea.
- Azken 3 urteotan irtenaldiko erakunde anfitrioiaren herrialdean 12 hilabetez gora lanean egon ez izana, deialdiaren azken egunetik hasita.
- Lan-ibilbidea Bizkaiko ikerketa-proiektu berritzailean garatu nahi izatea eta nazioarteko zentroan goi-mailako prestakuntza espezializatua egiteko premia edukitzea.
- Prestakuntza-aldia amaitutakoan, Bizkaira itzultzeko konpromisoa hartzea, eskabidea egitean lurralde historikoan aukeratutako erakundearekin (edo Bizkaian finkatutako beste erakunde batekin) bat egiteko.

### **Erakunde onuradunaren betekizunak/betebeharrak:**

- Zerga-helbidea Bizkaian duten enpresak, unibertsitateak, elkarteak eta fundazioak edo Bizkaiko Lurralde Historikoan lantokia daukaten erakundeak izatea.
- Bizkaian finkatutako erakunde parte-hartzailean lan egin nahi duten esperientziadun ikertzaileei behar besteko aukera eman nahi izatea, ikerketa-proiektua garatu dezaten eta atzerrian nazioarteko erakunde ospetsuan euren gaitasunak hobetu ditzaten.

## **6. HAUTAGAIK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

- I. Eranskinean**, modalitate bakoitzeko hautagaiak aurkeztu beharreko agirien zerrenda osoa dago ikusgai.

## **7. HAUTAKETA-PROZESUA**

Hona hemen hautaketa-prozesuko faseak:

- 1. Aukeragarritasun-irizpideak egiaztatzeko fasea:** hasieran, ebaluazio-prozesua hasi baino lehen, aukeragarritasun-irizpideak betetzen dituzten eskabideak bahetuko dira. Fase hori bizkaia:talent-eko langileen ardurapean egongo da.
- 2. Ebaluaziorako fasea:** ebaluatzaileek hautagaiaren espedientearen azterketa egingo dute (hautaketa/ebaluaziorako irizpide gardenak kontuan hartuta).
- 3. Balioztatzeko fasea:** Batzordekideek puntuazio orokorra emango diote eskabide osoari, eta ados jarriko dira. Eskabideen azken sailkapena

Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaio, eta onartutako hautagaien zerrenda zein den erabakiko du modu formalean.

## **8. ESKABIDEEN BALIOESPENA ETA DIRU-LAGUNTZAREN ESLEIPENA**

Eskabideak honako irizpide hauen arabera balioetsiko dira ebaluazio-prozesuan :

- **Hasierako prestakuntza:** espediente akademikoa balioetsiko da, titulazio-mota, sariak eta onespak kontuan hartuta.
- **Esperientzia eta trebetasun profesionala:** honako hauxe balioetsiko da: proiektuaren arloko esperientzia, emaitza nabariak (patenteen garapena, argitalpenak, hitzaldietako partaidetza, doktoretzako tesien zuzendaritza, ikerketaren eta berrikuntzaren kudeaketa, lidergoa, jendearen sentsibilizaziorako jarduerak, irakaskuntza, jakintzen igorpena) eta lan-ibilbide dibertsifikatua.
- **Ikerketa-proiektuaren kalitatea, garapen profesionalerako aurreikuspenak kontuan hartuta:** ikertzailearen proiektua nolakoa den eta erakunde anfitrioiaren estrategiarekin bat datorren balioetsiko da. Horrez gain, zehatz-mehatz aztertuko da iraunkorra den (gai etikoak kontuan hartuta) eta proiektua ikertzailearen garapen profesionalerako aurreikuspenekin bat datorren. Era berean, balioetsi egingo da nolako ahalmena daukan erakunde anfitrioiak Bizkaian bertan eta, egokia izanez gero, nolakoa den erakunde anfitrioi hartzailearena (taldeen gaitasuna, instalazioak, laborategiak, lan-baldintzak...).

Honelaxe emango da laguntza:

- Zehaztutako epearen barruan aurkeztutako eskabideetan adierazitako merituen lehiaketaren bidez.
- Deialdiko jarraibideetan adierazitako ebaluazio-irizpideen arabera puntuazio handiena lortu duten eskabideen bitartez. Guztira eman beharreko laguntzen



muga, gainera, zuzkidura ekonomikoaren atalean adierazitako zenbatekoa izango da: 900.000 euro.

## **9. EGUTEGI ORIENTAGARRIA**

Honako egutegi orientagarri hau ezarriko da 2015ko Ikertzaileentzako Diru-laguntza Programarako deialdian:

- Eskabidea egiteko epea: maiatzaren 11era
- Ebaluazio epea: 2015ko maiatza-ekaina
- Emaizak eta diru-laguntzaren esleipena: 2015ko ekaina - uztaila
- Bekarako kontratua: 2015ko ekaina - uztaila

## **10. FAQ**

**Ohiko galderak**

## **11. BIZKAIARI BURUZKO INFORMAZIOA**

- [Relocation Euraxess services](#)
- [Eskualdeari buruzko informazio orokorra, ikerketarako zein integraziorako ingurunea kontuan hartuta](#)

## **12. ERREGISTROA**

[Erregistro-plataforma](#)

## **13. ESKABIDEKO AGIRIAK**



- Hautagaiantzako Gida
- **I. eranskina:** Aurkeztu beharreko agiriak

